

BOS

Bilbao Orkestra Sinfonikoa

Erik Nielsen
Zuzendari Titularra | Director Titular

DENBORALDI SINFONIKOA / TEMPORADA SINFÓNICA
GANBERAKO DENBORALDIA / TEMPORADA DE CÁMARA

# 23 | 24

# ENTZUTEN jakin

# Saber ESCUCHAR

## DENBORALDIKO HITZORDU NAGUSIAK / GRANDES CITAS DE LA TEMPORADA

100 Ligeti / 200 Bruckner

«**Los Planetas**» de Holst

Ravelen «**Boleroa**»

Cierre de temporada:
«**Una vida de héroe**», con Erik Nielsen


BOS
Bilbao
Orkestra
Sinfonikoa
Erik Nielsen
Zuzendari Titularra | Director Titular

# XX Century Classics

Gaur egungo orkestra sinfonikoen errepertorioa 350 urteko paisaia zabal bat da. Barrokotik hasi eta atzo bertan sortutako soinuetara arte, orkestra tresna bikaina dugu gizakion sormen eta inspiraziorako.

XX. mendeak erabateko haustura ekarri zuen aurreko bi mendeetan jaun eta jabe izandako konposizio-arauekiko, eta entzuleei esperientzia musikal ugaria proposatu zien. Artea bere garaiko gizartea irudikatzen duen kuboan bustitzen den belakia bada, XX. mendeko musika gizateriaren une nahasi bati emandako erantzuna dugu.

Bilbao Orkestra Sinfonikoaren 2023-2024 denboraldiak, ohi bezala, hainbat garai eta estilotako obrak biltzen ditu, baina XX. mendean argitaratutako funtsezko pieza batzuk hartu ditu ildo nagusitzat. Obra horietako batzuekin ziklo tematiko txiki bat osatu dugu, baina denboraldian zehar beste adibide batzuk ere izango dira. György Ligetiren figurari arreta berezia jarriko diogu bere mendeurrenaren urtean, eta musikagilearen pieza ospetsuenetako hiru izango ditugu entzungai. Horrez gain, 2024an beste efemeride musikal bat ospatuko dugu: Bruckner jaio zeneko 200 urte.

Erik Nielsenen denboraldietan ahotsaren presentzia oso ohikoa izaten da, eta oraingoan lau programatan izango du ahotsak protagonismoa. Horien artean nabarmentzekoa da Earth Symphony obraren Europako estrainaldia, 2022an EMMY bat irabazitako Jake Runestad konpositoreak sortutakoa.

Programazioak aurpegi berri ugari ditu orkestra-zuzendaritzan. Denboraldi honetan zehar orkestra zuzentzeko ardura beren gain hartzeko prest dauden gazteak: Isabel Rubio, Chloé van Soeterstède, Pablo Rus Broseta eta Yue Bao. Baita eskarmentua hartua duten izenak ere, hala nola Nacho de Paz, Daniele Squeo, Pedro Gandía eta Samy Moussa kanadiarra. Horiekin batera, ibilbide luzeko batutak izango ditugu: gure zuzendari titularra den Erik Nielsen, Giancarlo Guerrero, Pablo González, Ludovic Morlot eta Leonard Slatkin.

Bakarlarien nominan ere izen garrantzitsuak izango dira: Emmanuel Pahud flauta-jotzailea; Jan Lisiecki eta Alexander Katorow piano-jotzaileak; Martín García gazte harrigarria; Jussen anai bizigarrien itzulera; Alena Baeva, Esther Yoo eta Karen Gomyo biolin-jotzaileak; Johannes Moser biolontxelo-jotzaile bikainaren itzulera, eta, azkenik, gure zurezko haize-bakarlarien laukotea.

XXI. mendeko musikan arreta jarriko dugu, Isabel Urrutia getxoztar konpositoreak idatzitako *Urkiola* obraren estreinaldiarekin, Unsuk Chin korearraren *Subito con forza* bolkanikoarekin, Samy Moussaren *Biolinerako kontzertuekin* eta Juke Runestad-en *Earth Symphony* lanarekin.

Halaber, BOSek hitzordu garrantzitsu bat izango du martxoan, Auditorio Nazionala bisitatuko baitugu, Espainiako Orkestra Nazionalarekin (ONE-Orquesta Nacional de España) egindako truke-akordio bati esker. Egitarau bikaina izango da, gure konpositoreen musikarekin (Ravelen *Boleroa* eta Andrés Isasiren *Orakulua*) eta gure lurraldeko bakarlariarekin osatutakoa (Asier Polok Straussen *On Kixote* interpretatuko du), Giancarlo Guerreroren zuzendaritzapean. Programa hori hurrengo astean errepikatuko dugu gure abonamenduko denboraldian.

El repertorio de las actuales orquestas sinfónicas es un vasto paisaje sonoro que abarca más de 350 años. Desde el barroco hasta los sonidos creados ayer mismo, la orquesta resulta ser un formidable instrumento al servicio de la inspiración y de la creatividad humana.

El siglo XX representó una ruptura radical con las normas compositivas que habían gobernado prácticamente sin alteración los dos siglos anteriores, proponiendo una enorme variedad de experiencias musicales a los oyentes. Si el arte es la esponja que se empapa en el cubo que representa la sociedad de su tiempo, la música del siglo XX es la respuesta a un momento convulso en la humanidad.

La temporada 2023-2024 de la Bilbao Orkestra Sinfonikoa recorre, como es habitual, épocas y estilos, pero traza su hilo conductor en algunas piezas esenciales que vieron la luz en el siglo XX. Con algunas de ellas hemos conformado un miniciclo temático, pero habrá otros ejemplos repartidos a lo largo de la temporada. Con una atención especial a la figura de György Ligeti en el año de su centenario, incluyendo tres de sus piezas más célebres. También celebramos otra gran efeméride musical de 2024, los doscientos años del nacimiento de Anton Bruckner.

Las temporadas de Erik Nielsen han tenido como factor común una importante presencia de la voz, y en esta ocasión serán cuatro los programas en los que tendrá protagonismo. Entre ellos resalta el estreno en Europa de la Earth Symphony de Jake Runestad, ganadora de un EMMY en 2022.

La programación presenta un buen número de caras nuevas en la dirección de orquesta. Jóvenes preparados y preparadas para asumir la responsabilidad de dirigir la orquesta en temporada: Isabel Rubio, Chloé van Soeterstède, Pablo Rus Broseta y Yue Bao. También contamos con nombres más experimentados como Nacho de Paz, Daniele Squeo, Pedro Gandía, o el canadiense Samy Moussa. Junto a ellos, batutas de largo recorrido como las de nuestro director titular Erik Nielsen, Giancarlo Guerrero, Pablo González, Ludovic Morlot y Leonard Slatkin.

En la nómina de solistas habrá nombres importantes como el flautista Emmanuel Pahud; los pianistas Jan Lisiecki, Alexander Katorow, el joven y sorprendente Martín García o los hermanos Jussen; las violinistas Alena Baeva, Esther Yoo y Karen Gomyo; la vuelta del excelente violonchelista Johannes Moser; y un cuarteto de nuestros solistas de viento madera.

También prestaremos atención a la música del siglo XXI con el estreno de *Urkiola* de la getxotarra Isabel Urrutia, la volcánica *Subito con forza* de la coreana Unsuk Chin, el *Concierto para violín* de Samy Moussa o *Earth Symphony* de Juke Runestad.

La BOS tendrá una cita importante en marzo, cuando visitaremos el Auditorio Nacional dentro de un acuerdo de intercambio con la Orquesta Nacional de España (ONE). El programa contará con música de nuestros compositores (*Bolero* de Ravel y *El oráculo* de Andrés Isasi) y un solista también de nuestra tierra (Asier Polo interpretando el *Don Quijote* de Strauss) con Giancarlo Guerrero a la dirección. Un programa que repetiremos la semana siguiente en nuestra temporada de abono.

+ info: **www.bilbaorkestra.eus**

# Denboraldi Sinfonikoa
# 2023-2024
# Temporada Sinfónica

Kontzertu guztiak 19:30etan izango dira
Todos los conciertos se celebrarán a las 19:30 h

Palacio Euskalduna Jauregia
(Bilbao). Auditoriuma/Auditórium

Hastapeneko abonua | Abono de Iniciación

**XX Century Classics**

Programazio hau alda liteke. Baldintza orokorrak ikusteko www.bilbaorkestra.eus
Programación sujeta a cambios. Ver condiciones generales en www.bilbaorkestra.eus

## Lisiecki eta Beltxargen aintzira

Ballet klasikorako musika sortzen zuten konpositoreek pertsona langileak, gustu onekoak eta pazientzia handikoak izan behar zuten, lehenengo dantzariaren eskarietara moldatzeko. Harik eta Txaikovski iritsi eta ballet-musika arte bilakatu zuen arte. *Beltxargen aintzira* izan zen genero horretako bere lehen lana, kontzertuan entzuten dugunean besaulkian dantza betean hasteko gogoa ematen diguna. Prokofievek mutur-muturrera eraman zituen pianistak bere bigarren kontzertuan (adi kadentzia ikaragarriari), eta Wagnerrek, berriz, Tannhäuserren Ateak zabalduko dizkigu, Venusberg mendira sartzeko.

## Lisiecki y El lago de los cisnes

A los compositores para ballet clásico se les suponía oficio, gusto y mucha paciencia para adaptarse a las demandas de la primera bailarina. Hasta que llegó Tchaikovsky y convirtió la música de ballet en arte. *El lago de los cisnes* fue su primera incursion en el género y su escucha en concierto invita a bailar en la butaca. Prokofiev llevó a los pianistas hasta sus límites en su segundo concierto (ojo a la temible cadencia), mientras Wagner nos abre las Puertas de Tannhäuser que dan acceso al Venusberg.



© Stefano Galuzzi

**01** irailak **28-29** septiembre

**R. Wagner:** *Tannhäuser, obertura*

**S. Prokofiev:** *Concierto para piano y orquesta nº 2, op. 16*

**P.I. Tchaikovsky:** *El lago de los cisnes, suite Op. 20a*

**Jan Lisiecki,** pianoa/piano

**Erik Nielsen,** zuzendaria/director

## Planetak eta Lurraren sinfonia

Gustav Holst-ek XX. mendeko lanik arrakastatsuenetako bat konposatu zuen: Planeten musika, baina ez zuen Lurra barne hartu. Berriki, Jake Runestad estatubatuarrak obra koral handinahi bat estreinatu du: *Earth Symphony*, San Juan Bautista abesbatzako ahots gazteei esker Holsten osagarri bikainean bilakatuko dena. Eta testuinguru planetario horretan, leku naturala hartuko du Ligetiren musikarekin haren mendeurrenean izango dugun lehen kontaktuak: *Lontano*, musikagilearen maisulan laburretako bat.

## Los Planetas y la Sinfonía de la Tierra

Gustav Holst compuso uno de los grandes éxitos del s. XX con su música para los Planetas, entre los que no incluyó a la Tierra. Recientemente, el norteamericano Jake Runestad estrenó una ambiciosa obra coral, *Earth Symphony*, que se intuye como un magnífico complemento a Holst en las jóvenes voces del coro San Juan Bautista. Y en este contexto planetario encuentra su lugar natural el primer contacto con la música de Ligeti en su centenario: *Lontano*, una de sus breves obras maestras.



© Pablo Albacete

**02** urriak **05-06** octubre

**G. Ligeti:** *Lontano*

**J. Runestad:** *Earth Symphony*

**G. Holst:** *The planets*

**San Juan Bautista Abesbatza** (**Basilio Astúlez,** zuz./dir)

**Nacho de Paz,** zuzendaria/director

## Mugarik ez duen opera

Olesya Golovneva bikainak txekieraz, italieraz eta errusieraz abesten du, sopranoen errepertorioan funtsezkoak diren hiru aria biltzen dituen programa batean: *Rusalka*ren ilargiari egindako abesti delikatua, *Don Carlon* Elisabettak abestutako aria dramatikoa eta *Eugene Onegin*en gutunaren eszena, Erik Nielsenen hitzetan, Txaikovskik konposatutako maitasun-jariorik handiena dena. Eta hiru arien preludio gisa, operetako ballet-musika aparta izango dugu entzungai. Musikak, zorionez, ez dauka mugarik.

## Ópera sin fronteras

La magnífica Olesya Golovneva canta en checo, italiano y ruso en un programa que incluye tres arias esenciales en el repertorio de soprano: la delicadísima canción a la luna de *Rusalka*, la dramática aria de Elisabetta de *Don Carlo* y la Escena de la carta de *Eugene Onegin*, en palabras de Erik Nielsen, "la mayor efusión de amor compuesta por Tchaikovsky". Y preludiando a las tres arias, la brillante música de ballet incluida en las óperas. La música, afortunadamente, no conoce fronteras.



© Kerstin Kühne

**03** urriak **19-20** octubre

**A. Dvorák:** *La bruja del mediodía, op. 108*

**A. Dvorák:** *Canción a la luna, de Rusalka*

**G. Verdi:** *Música de ballet, de Don Carlos*

**G. Verdi:** *"Tu che la vanità", de Don Carlo*

**P.I. Tchaikovsky:** *Selección de Eugene Onegin*

**P.I. Tchaikovsky:** *Escena de la carta de Eugene Onegin*

**Olesya Golovneva,** sopranoa/soprano

**Erik Nielsen,** zuzendaria/director

## Ligeti eta orkestrarako kontzertua

Bigarren geldialdia egingo dugu Ligetiren musikan eta musika hori berezi egiten duten berezitasunetan, hala nola mikropolifoniaren erabilera pertsonalean, zeinak soinu-magma bat gogorarazten duen musika-dentsitatea eragiten baitu: estatikoa dirudi, baina ezinbestean mugitzen da. Bartókek, azkenean, arrakasta lortu zuen XX. mendeko musikaren mugarri izan zen *Orkestrarako Kontzertua*rekin, eta Mozartek bere jakinduria eta xarma guztia baliatu zituen haize-instrumentuak jorratzeko. Plazer hutsa izango da gure bakarlari-laukotearen eskuetatik entzutea.

## Ligeti y el concierto para orquesta

Segunda parada en la música de Ligeti y las particularidades que la hacen única, como el personal uso de la micropolifonía, provocando una densidad musical que recuerda a un magma sonoro: parece estático pero fluye inexorablemente. Bartók consiguió por fin el éxito con su *Concierto para orquesta*, un hito en la música del siglo XX, y Mozart volcó en su concertante toda su sabiduría y encanto en el trato de los instrumentos de viento. Un regalo en las manos de nuestro cuarteto de solistas.



© Anita Torres

**04** azaroak **02-03** noviembre

**G. Ligeti:** *Ramifications*

**W.A. Mozart:** *Sinfonía concertante para instrumentos de viento K. 297b*

**B. Bartók:** *Concierto para orquesta*

**Nicolas Carpentier,** oboea/oboe

**Carlos García,** klarinetea/clarinete

**Pedro Pardo,** fagota/fagot

**Luis Fernando Núñez,** tronpa/trompa

**Isabel Rubio,** zuzendaria/directora

## Xostakovitxen testigantza

Xostakovitxek Stalinen urte gogorren irudi lazgarri bat marraztu zuen bere hamargarren sinfonian, diktadorea hil eta gutxira amaituko zuena. Hain da handia bere musikaren ahalmen oroigarria, ezen adierazgarriagoa izan baitaiteke kronistek idatzitako bolumen mardulak baino. Bigarren mugimenduaren ankerkeriak eta hirugarrenaren bals groteskoak garai horren erretratu dramatikoa marrazten dute. Bestalde, Maria Canals lehiaketaren irabazleak beste lan sakon bati egin beharko dio aurre: Beethovenen laugarrenari.

## El testimonio de Shostakovich

Shostakovich dibujó un cuadro desgarrador de los años de hierro de Stalin en su décima sinfonía, finalizada poco después de morir el dictador. Es tal el poder evocador de su música que puede resultar más elocuente que los gruesos volúmenes de los cronistas. La fiereza del segundo movimiento, el vals grotesco del tercero, dibujan un retrato dramático de esa época. Por su parte, el ganador del Concurso María Canals se enfrenta a otra obra de profundo calado: el cuarto de Beethoven.



© Diamond's Edge

**05** azaroak **30** noviembre
abenduak **01** diciembre

**L. van Beethoven:** *Concierto para piano y orquesta nº 4, en Sol Mayor, op. 58*

**D. Shostakovich:** *Sinfonía nº 10, Op. 93*

**Jaeden Izik-Dzurko,** pianoa/piano

**Pablo González,** zuzendaria/director

Fundación Jesús Serra
Catalana Occidente

## Mozart eta XX. mendeko klasikoak

Batzuetan, obra garaikide handiek eta Mozartek zerabilen orekak uste baino antz handiagoa dute. Denek dute klasikoek daukaten ziurtasun-kutsu hori. Halaxe nabari da Dutilleuxek Baudelaireri buruz konposatu zuen oroitzapen poetikoan —Johannes Moserren atzamarretan entzuteko irrikaz gaudena—, edo Ligetiren *Lux Aeterna* hipnotikoan, Kea Ahots Taldearen ahotsetan kristal hutsa dena. Edo Isabel Urrutiaren obra berria deskubritzen dugunean, Urkiolan inspiratua eta World Timbres Mixture teknikarekin konposatua.

## Mozart y los clásicos del siglo XX

A veces las grandes obras contemporáneas y el equilibrio de Mozart tienen mucho más en común de lo que pensamos. Todas comparten ese aire de certeza del que gozan los clásicos. Lo sentimos en la evocación poética que sobre Baudelaire compuso Dutilleux, y que ansiamos escuchar en los dedos de Johannes Moser, o en la hipnótica *Lux Aeterna* de Ligeti, cristal puro en las voces de Kea Ahots Taldea. O descubriendo la nueva obra de Isabel Urrutia, inspirada en Urkiola y compuesta bajo su técnica del World Timbres Mixture.



### 06 abenduak **14-15** diciembre

**I. Urrutia:** *Urkiola, para orquesta sinfónica y orquesta de instrumentos del folklore digitalizados*
*(Erabateko estreinaldia. SGAE Fundazioaren eta AEOS-en enkargua)*
*(Estreno absoluto. Obra por encargo de la Fundación SGAE y la AEOS)*

**H. Dutilleux:** *"Tout un monde lointain..." para violonchelo y orquesta*

**G. Ligeti:** *Lux Aeterna*

**W.A. Mozart:** *Sinfonía nº 39 en Mi bemol Mayor K. 543*

**Johannes Moser,** biolontxeloa/violonchelo

**Kea Ahots Taldea** (**Enrique Azurza**, zuz/dir)

**Erik Nielsen,** zuzendaria/director

## Gabonetako kontzertua

Poulencek iraganeko konpositore erlijiosoen lekukoa hartu eta Gloria sortu zuen, XX. mendeko musika erlijiosoaren maisulanetako bat, hain zuzen. Espiritu argitsuak, Bilboko Koral Elkartearen ahotsetan, garai honetan ospatzera gonbidatzen gaitu, eta ondo uztartzen da bere garaikide Germaine Tailleferren graziarekin. Respighi konpositorearen musikaren ospakizun bat ere bada, eta melankolia puntu bat du, Nino Rotak Felliniren La strada ahaztezinerako idatzitakoa, hain zuzen.

## Concierto de Navidad

Poulenc tomó el testigo de los grandes compositores sacros del pasado y consiguió con su Gloria una de las obras maestras de la música religiosa del siglo XX. Su espíritu luminoso, en las voces de la Sociedad Coral de Bilbao, invita a la celebración en estas fechas, y casa bien con la gracia de su contemporánea Germaine Tailleferre. También es una celebración la música de Respighi y, con un punto de melancolía, la que Nino Rota escribió para la inolvidable La strada de Fellini.



© Felix Grünschloß

### 07 abenduak **21-22** diciembre

**G. Tailleferre:** *Petite suite*

**N. Rota:** *La Strada, suite*

**O. Respighi:** *Fontane di Roma*

**F. Poulenc:** *Gloria*

**Katharina Ruckgaber,** sopranoa/soprano

**Sociedad Coral de Bilbao** (**Enrique Azurza,** zuz/dir)

**Daniele Squeo,** zuzendaria/director

## Alena Baeva eta Schumannen erromantizismoa

Mozarten, Arriagaren edota Schuberten kasuan bezala, ez dakigu Lili Boulanger noraino iritsiko zen osasunak errespetatu izan balu. 24 urterekin hil zenez, arian-arian baino ezin izan dugu disfrutatu bere lana. Irrikan gaude ikusteko Alena Baeva zoragarriak Prokofieven bigarrenaren zer bertsio eskaintzen digun, eta Schumannen erromantizismoa nola islatzen den Chloé van Soeterstède zuzendariaren batutan.

## Alena Baeva y el romanticismo de Schumann

Igual que con Mozart, Arriaga, o Schubert, no sabemos a dónde habría llegado Lili Boulanger si la salud le hubiera respetado. Su muerte a los 24 años nos privó de una obra que solo podemos disfrutar con cuentagotas. Esperamos con expectación también la versión que del segundo de Prokofiev pueda ofrecernos la gran Alena Baeva y la traducción del romanticismo de Schumann en la sensible batuta de Chloé van Soeterstède.



© Vladimir Shirokov

### 08 urtarrilak **11-12** enero

**Lili Boulanger:** *D'un matin de printemps*

**S. Prokofiev:** *Concierto para violín y orquesta nº 2 en sol menor, op. 63*

**R. Schumann:** *Sinfonía nº 2 en Do Mayor, Op. 61*

**Alena Baeva,** biolina/violín

**Chloé van Soeterstède,** zuzendaria/directora

## Messiaen Brucknerren ospakizunean

Brucknerren berrehungarren urteurrenak neurriko proposamen bat behar zuen. Goranzko batuta bat, Ludovic Morlot zuzendariarena, protagonismo osoa orkestrari ematen dion programa batean. Laugarren sinfonia izugarria entzungo da, “erromantikoa” ezizenekoa, eta, lehenago, beste konpositore eta organo-jotzaile baten musika: Olivier Messiaen bikainarena. *L´Ascension* izan zen bere lehen obra sinfoniko handia, eta Messiaen zuzenean jarri zuen XX. mendeko musikaren figura esanguratsuen artean.

## Messiaen en la celebración de Bruckner

La ocasión del bicentenario de Bruckner requería una propuesta de altura. Una batuta en alza, la de Ludovic Morlot, en un programa que otorga todo el protagonismo a la orquesta. La imponente cuarta sinfonía, apodada “romántica”, suena precedida por la música de otro gran compositor-organista, Olivier Messiaen. *L'Ascension* fue su primera gran obra sinfónica y situó inmediatamente al autor francés como una figura clave en la música del siglo XX.



© Lisa-Marie Mazzucco

### 09 urtarrilak **18-19** enero

**O. Messiaen:** *L'Ascension*

**A. Bruckner:** *Sinfonía nº 4 en Mi bemol Mayor*

**Ludovic Morlot,** zuzendaria/director

## Rakhmaninoven hirugarrena

Programa honi *birtuosismoaren askotariko formak* izenburua jartzerik ere bagenuen. XX. mendeko bi klasiko, elkarrekiko oso desberdinak, baina interpreteak beren mugetatik hurbil eramateko ezaugarria partekatzen dutenak. Rakhmaninoven kasuan, piano-jotzailea darama muga horietaraino (adi Martín García gaztearekin, eskola errusiarrean ikasitakoarekin); Lutoslawskiren kasuan, ordea, azaroan, Bartók musikariarenarekin batera orkestrarako interpretatuko dugun beste kontzertu handian dauden askotariko instrumentu-sortak daramatza mugetaraino.

## El tercero de Rachmaninov

Bien podríamos haber titulado este programa como “de las variadas formas del virtuosismo”. Dos clásicos del siglo XX, muy diferentes entre sí, pero que comparten la cualidad de llevar a los intérpretes cerca de sus límites. En el caso de Rachmaninov, al pianista (atención al joven Martín García, formado en la escuela rusa); y en el caso de Lutoslawski, a las diferentes familias instrumentales en el otro gran concierto para orquesta, junto al de Bartók que interpretamos en noviembre.


© Mahina Hawley

**10** otsailak **01-02** febrero

**W. Lutoslawski:** *Concierto para orquesta*

**S. Rachmaninov:** *Concierto para piano y orquesta nº 3 en re menor, op. 30*

**Martín García García,** pianoa/piano

**Pablo Rus Broseta,** zuzendaria/director

## Musika, femenino singularra

Programa honetako hiru emakume protagonistak emakumeek musika klasikoan izan duten goraldi geldiezinaren isla dira. Esther Yoo biolin-jotzaileak Prokofieven bigarrenari egingo dio aurre, konpositore errusiar horren kontzertuei aurtengo denboraldian eman diegun arreta bereziari amaiera bikaina emateko. Yue Bao etorkizun handiko gazteak Mendelssohnen *Eskoziarra* obra oroitarazlea zuzenduko du, eta Unsuk Chin konpositore ospetsuak energia eta umorea zabalduko ditu Beethovenen *Egmont* oberturaren omenaldi berezi batekin.

## La música, femenino singular

Las tres artistas protagonistas de este programa representan el imparable ascenso de la mujer en la música clásica. La violinista Esther Yoo afronta el segundo de Prokofiev, con el que cerramos la especial atención que hemos prestado esta temporada a los conciertos del compositor ruso. La joven y prometedora Yue Bao dirige la evocadora “Escocesa” de Mendelssohn, y la consagrada compositora Unsuk Chin reparte energía y humor con su particular homenaje a la obertura *Egmont* de Beethoven.


© Je Won Kim

**11** martxoak **07-08** marzo

**Unsuk Chin:** *Subito con forza*

**S. Prokofiev:** *Concierto para violín y orquesta nº 1 en Re Mayor, op. 19*

**F. Mendelssohn:** *Sinfonía nº 3 en la menor, op. 56 “Scottish”*

**Esther Yoo,** biolina/violín

**Yue Bao,** zuzendaria/directora

## On Kixote eta Ravelen boleroa

On Kixote antzeztu ez ezik, pertsonaia gorpuztu ere egiten du Asier Polok, eta gozatzeko ikuskizuna da beti. Straussek, halaber, orkestra nabarmentzeko xedez banatu ditu eginkizunak: biola, fagota, klarinete baxua, perkusioa, etab. Aurreko astean Madrilgo Auditorio Nazionalean jo genuen musika entzungo da berriz ere, bai eta konpositore ziburutarraren bolero ospetsu eta hipnotikoa ere. Jai izugarria izango da, Giancarlo Guerreroren zuzendaritzapean.

## Don Quijote y el Bolero de Ravel

Disfrutar de Asier Polo encarnando más que interpretando el Don Quijote es siempre un acontecimiento. Strauss además reparte papeles para el lucimiento de la orquesta: la viola, el fagot, el clarinete bajo, la percusión… Volverá a sonar la música de Isasi, que habremos interpretado la semana anterior en el Auditorio Nacional de Madrid, lo mismo que el célebre e hipnótico Bolero del compositor de Ciboure. Una fiesta bajo la batuta de Giancarlo Guerrero.



© Noah Shaye

**12** martxoak **21-22** marzo

**R. Strauss:** *Don Quijote, op. 35*

**A. Isasi:** *El oráculo*

**M. Ravel:** *Bolero*

**Asier Polo,** biolontxeloa/violonchelo

**Giancarlo Guerrero,** zuzendaria/director

## Samy Moussa eta Dvoráken 7. sinfonia

Oso ustekabe atsegina izan da azken urteotan Samy Moussaren musika ezagutzea eta ikus-entzuleekin duen konexio onaren lekuko izatea. Bere lana ezagutzen jarraitu ahalko dugu *Adrano* biolinerako kontzertuaren bidez, Karen Gomyo bikainaren eskutik; gainera, zuzendari-lanetan arituko da Nielsenen musikarekin eta Antonin Dvoráken 7. sinfonia kartsuarekin.

## Samy Moussa y la 7ª de Dvorák

Descubrir la música de Samy Moussa estos últimos años y comprobar su buena conexión con el público ha sido una muy agradable sorpresa. Tendremos ocasión de seguir explorando su obra con su concierto para violín “Adrano”, con la excelente Karen Gomyo y de disfrutarlo en su faceta de director con la música de Nielsen y la pasional 7ª sinfonía de Antonin Dvorák.



© Geneviève Caron

**13** apirilak **11-12** abril

**C. Nielsen:** *Helios, obertura*

**A. Dvorák:** *Romanza para violín y orquesta, Op. 11*

**S. Moussa:** *Concierto para violín y orquesta “Adrano”*

**A. Dvorák:** *Sinfonía nº 7 en re menor, Op. 70*

**Karen Gomyo,** biolina/violín

**Samy Moussa,** zuzendaria/director

## Pahud eta Mahlerren 5. sinfonia

Emmauel Pahud aspaldi kokatu zen txirularen esparruko gailurrean. Bere ibilbidean ziztu bizian gertatu da dena 22 urte zituela Berlingo Filarmonikoan bakarlari-plaza lortu zuenetik; bera zuzenean entzun dutenek diote bere musika arnasaren luzapena bezalakoa dela. Zuzendari-titular gisa egindako ibilbideari agur esaten hasteko, Erik Nielsenek Mahlerren 5. sinfonia eskainiko digu, eta haren gailurrez, haranez eta *adagietto* ederraz gozatuko dugu.

## Pahud y la 5ª de Mahler

La figura de Emmauel Pahud lleva años instalada en la cima del mundo de la flauta. Todo ha sido precoz en su carrera desde que a los 22 años obtuviese la plaza de solista de la Filarmónica de Berlín, y su sonido, dicen quienes le han escuchado en vivo, es como una prolongación de su respiración. En el inicio de su despedida como director titular, Erik Nielsen se enfrenta a la 5ª de Mahler: a sus cimas, sus valles y la belleza inabarcable de su adagietto.




**14** apirilak **18–19** abril

**C. Nielsen:** *Concierto para flauta y orquesta*

**W.A. Mozart:** *Andante en Do Mayor para flauta y orquesta K. 315*

**G. Mahler:** *Sinfonía nº 5 en do sostenido menor*

**Emmanuel Pahud,** xirula/flauta

**Erik Nielsen,** zuzendaria/director

## Erik Nielsenek Heroi bizitza bat zuzenduko du

*Ein Heldenleben* zuzendari-lana da. Richard Straussek berak zuzendu zuen lehen emanaldian; hala ere, beste zuzendari handi bati eskainita zegoen, Mengelberg zuzendariari eta Concertgebouweko orkestrari, hain zuzen ere. Nielsenek poema sinfoniko izugarri hau aukeratu du titular gisa denboraldi honetan emango duen azken kontzerturako. Programa osatzeko, Schönberg eta Ravel musikagileen beste bi pieza ezagun izango ditugu entzungai, eta aipatzekoa da Alexandre Kantorow karismadunaren presentzia.

## Erik Nielsen dirige Una vida de héroe

*Ein Heldenleben* es una obra de director. Fue dirigida por el propio Richard Strauss en su estreno, aunque estuviera dedicada a otro gran director, Mengelberg y su Orquesta del Concertgebouw. Este colosal poema sinfónico es la pieza elegida por Nielsen en su último concierto como titular en temporada. Otras dos piezas emblemáticas, de Schönberg y Ravel, con la presencia del carismático Alexandre Kantorow completan un programa en el que todo es importante.




**15** apirilak **25–26** abril

**A. Schonberg:** *Cinco piezas para orquesta, op. 16*

**M. Ravel:** *Concierto para la mano izquierda, en Re Mayor*

**R. Strauss:** *Una vida de héroe, op. 40*

**Alexandre Kantorow,** pianoa/piano

**Erik Nielsen,** zuzendaria/director

## Heroiak eta deabruak Tim Meaden ahotsean

Barroko-garaian, gehiegikeriak eta muturrak irudikatu ziren gehienbat. Kontratenoreak heroiaren rola hartu zuen maiz, hala nola Giulio Cesare eta Orlando pertsonaietan, zeinak Tim Meaden ahots zoragarriaren bidez izango ditugu entzungai; bestalde, deabrua kontraste dinamiko eta bat-bateko disonantzien bidez irudikatzen zen, Leclair eta Boccherini pertsonaietan bezalaxe. Hori guztia, Pedro Gandíak proposatutako programa interesgarriaren baitan, zeina Sevillako Orkestra Barrokoko zuzendari artistikoa izan baita bi hamarkadaz eta zeina garai horretako gure espezialista handietako bat baita.

## Héroes y Diablos en la voz de Tim Mead

El barroco fue una época favorable a los excesos y a la representación de los extremos. El contratenor asumió a menudo el papel de héroe en personajes como Giulio Cesare u Orlando, que escucharemos en la magnífica voz de Tim Mead, mientras la figura del diablo era sugerida con contrastes dinámicos y súbitas disonancias, como sucede en Leclair y Boccherini. Todo ello en este interesante programa propuesto por Pedro Gandía, durante dos décadas director artístico de la Orquesta Barroca de Sevilla y uno de nuestros grandes especialistas en este periodo.



© Benjamin Ealovega

**16**

maiatzak **16-17** mayo

**BOSbaroque**

**Obras y arias para contratenor de Leclair, Händel, Vivaldi, Geminiani y Boccherini**

**Tim Mead,** kontratenorra/contratenor

**Pedro Gandía,** kontzertino zuzendaria/concertino director

## Slatkin eta Jussen anaiak

Leonard Slatkinen esperientzia eta Jussen anaien gaztetasun ikaragarria uztartuko dira gure amaierako programan. Gure publikoak horiek guztiak ezagutzen ditu aurreko kontzertuetako arrakastari esker, errepertorio sutsuak baitituzte, esate baterako: erreferente bihurtu den bi pianoetarako kontzertua (neba-arreben kutsua duen lana da, Mozartek Nannerl arrebarekin jotzeko idatzi baitzuen), eta Brahmsen 1. sinfonia izugarria.

## Slatkin y los hermanos Jussen

La experiencia de Leonard Slatkin al servicio de la arrolladora juventud de los hermanos Jussen en nuestro programa de clausura. Todos ellos conocidos por nuestro público tras el éxito de sus anteriores conciertos, y ante repertorios altamente inflamables: el referente de los conciertos para dos pianos (una obra de carácter fraternal, pues Mozart la escribió para tocarla con su hermana Nannerl), y la rotunda 1ª Sinfonía de Brahms.



© Marco Borggreve

**17**

ekainak **06-07** junio

**S. Barber:** *Overture to The school for scandal*

**W. A. Mozart:** *Concierto para dos pianos y orquesta en Mi bemol Mayor, KV. 365*

**J. Brahms:** *Sinfonía nº 1 en do menor, Op. 68*

**Lucas & Arthur Jussen,** piano duetoa/dúo de pianos

**Leonard Slatkin,** zuzendaria/director

# EZOHIKO ERREZITALDIA
# RECITAL EXTRAORDINARIO

PIANOZ LAGUNDUTAKO
ABONUZ KANPOKO ERREZITALDIA
RECITAL CON PIANO FUERA DE ABONO



© Kirk Edwards

# YUJA WANG

2024ko ekainaren 2a
2 junio 2024

Palacio Euskalduna Jauregia
19:30 h

# Gure DENBORALDIKO ZENBAIT **PROTAGONISTA**



Nacho de paz

© Pablo Albacete



Olesya Golovneva

© Kerstin Kühne



Lucas & Arthur Jussen

© Marco Borggreve



Ludovic Morlot

© Lisa-Marie Mazzucco



Isabel Rubio

© Anita Torres



Alena Baeva

# ALGUNOS|AS **PROTAGONISTAS**
## de nuestra TEMPORADA


Esther Yoo
© Je Won Kim


Samy Moussa
© Geneviève Caron


Karen Gomyo


Chloe Van-Soeterstede
© Olivia Da Costa


Johannes Moser


Alexandre Kantorow
© Sasha Gusov

# Ganberako Denboraldia 2023-2024 Temporada de Cámara

Ganbera-denboraldian György Ligeti eta Anton Brucknerren urtemugak ere ospatuko ditugu, Ligetiren tronpa, biolin eta pianorako trioarekin eta Brucknerren harietarako kintetoarekin, baita Erwin Steinek ganbera-talderako murriztu duen Brucknerren 7. sinfonia interesgarriarekin ere.

Denboraldi sinfonikoko bakarlari batzuk gure ganbera-denboraldira gonbidatzeko ohiturari jarraituz, Johannes Moserren (biolontxeloa eta pianoa), Jussen anaien (piano-duetoa) eta Alena Baeva biolin-jotzailearen errezitaldiak izango ditugu BOSeko beste kide batzuekin batera, hain zuzen ere, “Solista handiak BOSekin batera” formatuaren baitan.

BOSeko ganbera-taldeek hainbat proposamen egingo dizkigute: emakume musikagile frantsesen programa erakargarri bat, operako konpositore ospetsuen ganbera-arloko bi adibiderekin batera; Zelenka eta Bach protagonista dituen programa barroko bat; musikaren umoreari eskainitako proposamen bat, Schnittke eta Mozartekin, eta errepertorio handiko obrak, hala nola Brahmsen Sestetoa.

La temporada de cámara celebrará también los aniversarios de György Ligeti y Anton Bruckner con la interpretación del Trío para trompa, violín y piano de Ligeti y del Quinteto para cuerdas y la interesante reducción para grupo de cámara de la Sinfonía nº 7 de Bruckner, realizada por Erwin Stein.

Siguiendo nuestra práctica de invitar a algunos de los solistas de la temporada sinfónica a nuestra temporada de cámara, contaremos con un recital de Johannes Moser (violonchelo y piano), otro de los hermanos Jussen en dúo de pianos y con la participación de la violinista Alena Baeva con otros miembros de la BOS dentro del formato “grandes solistas con la BOS”.

Entre las propuestas de los grupos de cámara de la BOS, un sugestivo programa con compositoras francesas junto a dos ejemplos de la vertiente camerística de célebres compositores de ópera, un programa barroco con Zelenka y Bach como protagonistas, una propuesta dedicada al humor en la música con Schnittke y Mozart, y obras de gran repertorio como el Sexteto de Brahms.

Kontzertu guztiak 19:30etan izango dira
Todos los conciertos se celebrarán a las 19:30 h

Palacio Euskalduna Jauregia (Bilbao)
OB Aretoa/Sala OB


György Ligeti

## 01 urriak **16** octubre

**G. Ligeti:** *Trío para violín, trompa y piano*

**BOSen hirukotea/Trío BOS**

**R. Strauss:** *Till Eulenspiegel*

**BOSen boskotea/Quinteto BOS**

**B. Martinů:** *Noneto nº 2*

**BOSen bederatzikotea/Noneto BOS**

Programazio hau alda liteke. Baldintza orokorrak ikusteko www.bilbaorkestra.eus
Programación sujeta a cambios. Ver condiciones generales en www.bilbaorkestra.eus




## 02 azaroak **20** noviembre

**Aita Donostia:** *Sagar dantza*
**A. Bruckner / E. Stein:** *Sinfonía nº 7*

**BOSen ensemblea/Ensemble BOS**




## 03 abenduak **18** diciembre

### Bakarlari handiak Errezitaldian
### Grandes Solistas en Recital

**N. Boulanger:** *Trois pièces*
**B. Martinů:** *Sonata para violonchelo y piano nº 2*
**S. Rachmaninov:** *Sonata para violonchelo y piano, op. 19*
**F. Poulenc:** *Sonata para violonchelo y piano, FP 143*
**B. Martinů:** *Variaciones sobre un tema de Rossini*

**Johannes Moser,** biolontxeloa/violonchelo
**Andrei Korobeinikov,** pianoa/piano




## 04 urtarrilak **15** enero

### Bakarlari Handiak BOSekin
### Grandes Solistas con la BOS

**Alena Baeva,** biolina/violín

**BOSen laukotea/Cuarteto BOS**



## 05 otsailak **05** febrero

**B. Smetana:** *Cuarteto de cuerdas nº1 en mi menor “De mi vida”*

**BOSen hari-laukotea/Cuarteto de cuerda BOS**

**A. Bruckner:** *Quinteto de cuerdas en Fa Mayor*

**BOSen hari-boskotea/Quinteto de cuerda BOS**




## 06 martxoak **04** marzo

**“ELLAS” compositoras del s. XIX francés**
Obras de **Nadia Boulanger, Lili Boulanger, Cécile Chaminade y Pauline Viardot**

**BOSen soprano, xirula eta harpa hirukote**
**Trío de soprano, flauta y arpa BOS**

**G. Puccini:** *"Crisantemi", para cuarteto de cuerdas*
**G. Verdi:** *Cuarteto de cuerdas en mi menor*

**BOSen hari-laukotea/Cuarteto de cuerda BOS**



## 07 apirilak **08** abril

**A. Pärt:** *Frates*
**Daniel Wohl:** *Exchange*

**BOSen hari eta perkusio ensemblea**
**Ensemble de cuerda y percusión BOS**

**A. Webern:** *Langsamer Satz*

**BOSen hari-laukotea/Cuarteto de cuerda BOS**

**J. Brahms:** *Sexteto para cuerdas en Si bemol Mayor, op. 18*

**BOSen hari-seikotea/Sexteto de cuerda BOS**



## 08 apirilak **29** abril

**A. Schnittke:** *Quinteto con piano*

**BOSen boskotea pianoarekin**
**Quinteto con piano BOS**

**A. Schnittke:** *Moz' Art à la Haydn*

**BOSen hari-ensemblea/Ensemble de cuerda BOS**

**W. A. Mozart:** *Una broma musical, KV 522*

**BOSen hari eta haize ensemblea**
**Ensemble de cuerda y viento BOS**



## 09 maiatzak **20** mayo

**J. D. Zelenka:** *Trío sonata nº 6 para dos oboes, fagot y bajo contínuo en do menor*

**J. S. Bach:** *Sonata nº 3 en re menor*

**BOSen ensemble barrokoa**
**Ensemble barroco BOS**

**J.S. Bach:** *Concierto de Brandenburgo nº3 en Sol Mayor*

**J.S. Bach:** *Concierto de Brandenburgo nº 6 en Sib Mayor*

**BOSen ensemble barrokoa**
**Ensemble barroco BOS**


© Marco Borggreve

## 10 ekainak **03** junio

### Bakarlari handiak Errezitaldian
### Grandes Solistas en Recital

**Lucas & Arthur Jussen,**
piano duetoa/dúo de pianos

# ZURE ABONUA AUKERATU EZAZU | ELIGE TU ABONO

# 5 ABONU MOTA
# TIPOS DE ABONOS

## Denboraldi Osorako Abonua / Abono de Temporada Completa

**17** kontzertu
conciertos

Ekainaren 19tik aurrera
A partir del 19 de junio

| Abonuak Nahierara<br>Abonos a la carta | Hastapeneko abonua<br>Abono de iniciación | Abonu tematikoa<br>Abono temático |
|---|---|---|
| **6** kontzertu conciertos<br>**9** kontzertu conciertos | **6** kontzertu conciertos | **4** kontzertu conciertos<br>**XX Century Classics** |
| 6 edo 9 kontzertu aukeratzeko<br>6 ó 9 conciertos a escoger | Egitarauak/Programas<br>**2, 3, 7, 11, 12, 15** | Egitarauak/Programas<br>**2, 4, 10, 14** |

**Ekainaren 28tik aurrera / A partir del 28 de junio**

# ABONUEN PREZIOAK | PRECIOS DE LOS ABONOS

## Denboraldi Sinfonikorako ABONUAK / ABONOS Temporada Sinfónica

| Abonu Arrunta / Abono Normal | Kontzertuak conciertos | A+ | A | B | B hegala lateral * | C | C hegala lateral * |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Abonu Osoa / Abono Completo | 17 | 366,86 € | 337,45 € | 266,90 € | 240,89 € | 135,15 € | 122,40 € |
| Hastapen-abonua / Abono de Iniciación | 6 | - | 136,26 € | 104,82 € | 94,62 € | 77,82 € | 70,38 € |
| Abonua nahierara-6 / Abono a la carta-6 | 6 | - | 143,22 € | 108,06 € | 97,44 € | 81,60 € | 73,68 € |
| Abonua nahierara-9 / Abono a la carta-9 | 9 | - | 213,39 € | 162,09 € | 146,25 € | 122,40 € | 110,52 € |
| Abonu tematikoa / Abono temático | 4 | - | 103,08 € | 71,76 € | 64,76 € | 54,80 € | 49,48 € |

| Abono Gazteak / Abono Gazteak (<30) | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Abonu Osoa / Abono Completo | 17 | 129,88 € | 129,88 € | 93,33 € | 84,83 € | 81,94 € | 74,63 € |
| Hastapen-abonua / Abono de Iniciación | 6 | - | 48,48 € | 36,12 € | 32,76 € | 26,22 € | 23,94 € |
| Abonua nahierara-6 / Abono a la carta-6 | 6 | - | 50,94 € | 37,02 € | 33,60 € | 27,84 € | 25,32 € |
| Abonua nahierara-9 / Abono a la carta-9 | 9 | - | 76,50 € | 55,62 € | 50,40 € | 41,76 € | 37,98 € |
| Abonu tematikoa / Abono temático | 4 | - | 34,20 € | 25,44 € | 23,08 € | 19,24 € | 17,52 € |

## Ganberako Denboraldia ABONUAK / ABONOS Temporada de Cámara

| | NORMALA \| NORMAL | GAZTEAK 30 urterarte / hasta 30 años |
|---|---|---|
| Denboraldi Sinfonikoan Abonatuak Abonados Temporada Sinfónica | 56,80 € | 28,40 € |
| Denboraldi Sinfonikoan Abonatu Gabeak No Abonados Temporada Sinfónica | 90,70 € | 45,40 € |

* Eserleku hauen ikuspena murritza da | Estas localidades tienen una visibilidad reducida.
Prezio horiek baliozkoak dira, tipografia-arazoek eragindakoak direnean salbu. BEZ barne | Precios válidos salvo error tipográfico. IVA incluido.

## NOLA ABONATU? | ¿CÓMO ABONARSE?

BOSeko bulegoetan, astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara

En las oficinas de la BOS, de lunes a viernes, de 09:00 a 14:00 horas.

**Palacio Euskalduna Jauregia. Abandoibarra etorbidea, 4. 48011 Bilbao**

www.bilbaorkestra.eus/eu/abonos-y-entradas/abona-zaitez

www.bilbaorkestra.eus/abonos-y-entradas/hazte-abonado

Informazio gehiago

Más información

**94 40 35 205**

# SARREREN PREZIOAK | PRECIOS DE LAS ENTRADAS

## Denboraldi Sinfonikorako SARRERAK / ENTRADAS Temporada Sinfónica

| | A+ | A | B | B hegala lateral * | C | C hegala lateral * |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Sarrera Arrunta / Entrada Normal | 32,60 € | 29,41 € | 20,75 € | 18,80 € | 15,91 € | 14,42 € |
| Gazteak sarrera / Entrada Gazteak (<30)** | 10,25 € | 10,25 € | 7,78 € | 7,06 € | 5,92 € | 5,41 € |
| Azken Ordua / Última hora*** | 16,30 € | 14,70 € | 10,38 € | 9,40 € | 7,96 € | 7,21 € |
| Credibos | - | 145,50 € | 103,20 € | - | 79,50 € | - |

## Ganberako Denboraldia SARRERAK / ENTRADAS Temporada de Cámara

| | NORMALA \| NORMAL | GAZTEAK 30 urterarte / hasta 30 años |
|---|---|---|
| Denboraldi Sinfonikoan Abonatuak Abonados Temporada Sinfónica | 11,18 € | 6,03 € |
| Denboraldi Sinfonikoan Abonatu Gabeak No Abonados Temporada Sinfónica | 11,18 € | 6,03 € |

## Ezohiko errezitaldirako SARRERAK / ENTRADAS Recital extraordinario Yuja Wang

| | A+ | A | B | B hegala lateral * | C | C hegala lateral * |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Sarrera Arrunta / Entrada Normal | 60,00 € | 50,00 € | 44,00 € | 39,60 € | 36,00 € | 32,40 € |

**Abonatuentzako % 20ko deskontua. Leihatila bidezko salmentetan baino ez | 20% de descuento a personas abonadas. Sólo aplicable en la venta en taquilla**

* Eserleku hauen ikuspena murritza da | Estas localidades tienen una visibilidad reducida.
** Gazteentzako prezio bereziak txartel-leihatilako salmentan baino ez dira aplikatzen | Los precios especiales para jóvenes sólo se aplican en la venta en taquilla.
*** Sarrera-kopuru mugatua | Número limitado de entradas.
Prezio horiek baliozkoak dira, tipografia-arazoek eragindakoak direnean salbu. BEZ barne | Precios válidos salvo error tipográfico. IVA incluido.

## SARRERAK | ENTRADAS

**Irailaren 11tik aurrera** izango dira salgai kontzertuetarako sarrerak.
- www.bilbaorkestra.eus
- Euskaldunako txartel-leihatilak

Kontsulta itzazu gure webgunean sarrerak erosteko dauden deskontu eta aukera guztiak.

Venta entradas para los conciertos **a partir del 11 de septiembre.**
- www.bilbaorkestra.eus
- Taquillas Euskalduna

Consulta todos los descuentos y opciones de compra de entradas en nuestra web.

Ondorengo helbidean kontsulta ditzakezu gure baldintza orokorrak:
**www.bilbaorkestra.eus/eu/abonos-y-entradas/baldintza-orokorrak**

Consulte nuestras condiciones generales en:
**www.bilbaorkestra.eus/abonos-y-entradas/condiciones-generales**

Denboraldi Sinfonikoa
2023-2024
Temporada Sinfónica

# Guneen eta eserlekuen planoak
# Plano de zonas y localidades




GUNEA / ZONA

- A+
- A
- B
- B hegala/lateral
- C
- C hegala/lateral

Ⓜ Ezinduentzat gordetako eserlekua
Asiento reservado para minusválidos

- Patioa/Patio
- Palkua/Palco
- Terraza

BOS

Bilbao Orkestra Sinfonikoa

ZURE ORKESTRA GARA

23

Denboraldia | Temporada

24

SOMOS TU ORQUESTA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Bilbao

Palacio Euskalduna Jauregia
Abandoibarra etorbidea, 4 - 48011 Bilbo
Tf. 94 40 35 205
e-maila: abonados@bilbaorkestra.eus

www.bilbaorkestra.eus